

2006ko irailaren 12an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.006KO ABUZTUAREN 1EKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.-ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.
- 4.- LARDI AUZOKO OBRA PROIEKTUARI HASERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.
- 5.-GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GARAPEN IRAUNKORREKO DEPARTAMENTUAK AURKEZTURIKO “TOLOSALDEKO UR HORNIDURA 5.FASEA ADUNAKO ADARRAREN 1.PROIEKTU ALDATUKO” OBREN 5.ZIURTAGIRIA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 6.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 7.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
- 8.-ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 9.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko irailak 7.

ALKATEA.

2.006KO IRAILAK 12

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.

Antton Artola Iburguren.

Patxi Ormaetxea Otegi.

Miren Aburuza Alkorta.

Javier Zabala Zabala.

Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko irailaren 12ko hogeita bat orduak eta hamar minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2006KO ABUZTUAREN 1EKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak 2006ko Abuztuaren 1eko alkatearen berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Rosa Maria Dos Santos Andereari Adunako aparkamenduan utzitako ibilgailua erretiratzeko errekerimendua jakineraztea (161/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- Bernardina Zabala Andereari Adunako Altzarteko Zabalaren etxeordeko ormak txukuntzeko baimena ematea (162/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- Jesus Mari Gorostidi Astigarraga Jaunak jarritako berraztertze errekurtsoa hein batean onartzea, egindako eustorma ez botatzeko eskaera onartuz, baina egindako estalpea botatzeko jakinaraziz (163/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- Daniel Barcos enpresari bi hilabeteko epea daukala iharduera baimena eskatzeko jakinarazpena (164/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- Sara eta M^a Carmen Lopez Andreei baimenik gabe egindako obren inguruko errekerimendua jakineraztean (165/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- Juan Goikoetxea Albisu Jaunak nekazaritza, lorazaintza eta berdegunetara bideratuko diren zenbait produktuen salmenta eta banaketa iharduerarako aurkezturiko proiektua martxan jartzea (166/2006 Alkatetza Ebazpena).

7.- “Carpinteria Metalica Ranedo S.L” ri buruzko iharduera sailkatuko azken Alkatzaren txosten faboragarria eman expedientea Eusko Jaurlaritzari bidaliaz.(166/2006 Alkatetza Ebazpena).

8.- Udaleko Arlo juridikoa sendotzeko programa garatzeko Nerea Ubeda Etxarri Anderea izendatzea (167/2006 Alkatetza Ebazpena).

9.- Pedro Rodriguez Ramirez Jaunari Adunako U.A.U 2.3 Allapur Kaleko 3.zb.an eraikitze etxebizitzaren habilitabilitate baimena ematea (168/2006 Alkatetza Ebazpena).

10.- Pablo Zumeta Jaunari Zumeta Bizitegia S.L enpresan 1225 metroko hormigoizko zorua botatzeko obra baimena ematea (169/2006 Alkatetza Ebazpena).

11.- Antton Artola Jaunari Andretegi baserriari erantsitako eraikin bat egiteko obra baimena ematea (170/2006 Alkatetza Ebazpena).

12.- Martin Esnaola Agirrezabala Jaunari aurkezturiko proiektua dagokion Elkargoaren bisituarekin aurkeztu behar duelaren errekerimentua jakinaraztea (171/2006 Alkatetza Ebazpena).

13.- M^a Jose Baltasar Alberro Andereari Lardi Auzoan egindako etxebizitzaren habilitabilitate baimena ematea (172/2006 Alkatetza Ebazpena).

14.- Gregorio Altube Jaunak “Refractarios Kelsen, S.A” n izenean eskaturiko bide itxiera ezeztea jakinaraztea (173/2006 Alkatetza Ebazpena).

15.- Daniel Etxarri Jaunari kitaturiko ur hornidura tasa akatsdunaren zuzenketa (174/2006 Alkatetza Ebazpena).

**HIRUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA
URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.**

Ez dago eskaerarik.

LAUGARREN PUNTUA:

**LARDI AUZOKO ZOLAKETA PROIEKTUA HASERAKO ONARPENA
EMATEA, BIDEZKOA BADA.**

Udal Baltzak ahobatez, ERAINEk erredaktatu eta Adunako Udalak sustaturiko “Adunako Lardi auzoko Zolaketa Proiektua” hasiera batez onartu du. Aldi berean, Jende aurrean erakustea hamabost egunez, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarritz, probintziako hedabiderik handienetako egunkari batean argitaratuz eta Udaletxeko Iragarki Taulan ezarriz, eta baita afektaturiko jabeen pertsonalki jakinaraziz ere, alegazioak egin

ditzaten.

**BOSTGARREN PUNTUA:
GIPUZKOAKO FORI ALDUNDIKO GARAPEN IRAUNKORREKO
DEPARTAMENTUAK AURKEZTURIKO “TOLOSALDEKO UR HORNIDURA
5.FASEA ADUNAKO ADARRAREN 1.PROIEKTU ALDATUKO” OBREN
5.ZIURTAGIRIA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamenduarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena sinatu ondoren, Udal Batzar honek, ahobatez, aipatutako Departamenduak igorritako Tolosaldeko ur hornidura 5.fasea: Adunako adarra proiektuaren 5.ziurtagiria onartu du, ziurtagiri honen zenbatekoa 46.018,94€tako delarik.

**SEIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak 2006ko 1.eta 2. hiru hilabeteko kuotaren erregulazio eta 3. hiru hilabeteko kuota aurkeztu ondoren, Udal Batzarrak, aho batez, 15.589,11€ tako faktura onartzen da.

2.- Soroa Arquitectos S.L –ek aurkezturiko arau laguntzaileen behin-behineko onarpenari dagokion ordainsarien faktura aho batez onartzen da, fakturaren zenbatekoa 16.121€ takoa delarik.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

Luis M^a Sorrarain Lasa Jaunak, ERNIOPE P.E elkarteko lehendakaria eta Adunako pilota delegatu/koordinatzailea den heinean, Erniope P.E. Elkarteko ekintzak eta Adunako pilota eskolako umeen ekintzak aurrera eramateko aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbaltzak, aho batez, ihaz emandako 300€ko dirulaguntza berdina ematea onartzen da.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:
ALKATEAREN INFORMAZIOA**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Beste Aztergairik gabe, hogeita hiru orduak direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.